



Torretxu

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Torrétxo



43° 10' 10"

2° 34' 8"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casería de Torrechu situada en el barrio de Ocampo de la anteiglesia de Berriz... es de una vivienda y se compone de un piso bajo y otro alto de cabida de doscientos y un estados o sea setecientos y cinco metros...”
DJE 6/140 or. (1892)

Berriztik *Done Mikel* (**Ikus Done Mikel / San Migel**) ermitara doan bide ondoan dagoen baserria da honako hau. Dokumentazioan, XVIII. mendeko azken su-errolan agertzen zaigu *Torrechua* (1796, Bizkaiko su-errolak). Ia aldaketarik izan ez duen izena da. XIX. eta XX. mendeetan agertzen diren aipuetan ere aldaera gutxi ezagutuko ditugu, *-chu* edo *-cho* amaierarekin agertzea izango delarik aldaketak bakarra: *Torrecho* (1825, PE/1825), *Torrechu* (1892, DJE, 6/ 140. or.) eta *Torrecho* 1967ko Udal-errolan. Auzotarren artean, *Torrétxo* forma darabilte ahozko jardunean.

XVIII. mende amaierako edo XIX. mende hasierako baserri-etxea, ia desagertzeko zorian egon dena. Hiru isurkiko teilatuaren azpian, harlangaitzaz jasotako eraikina dugu, luzituta eta pintatuta, nahiz eta dinteldun atea eta leihoak harlanduzkoak eduki. Hiru ardatzetan zeukan fatxada antolatua, atea erdian izanik. Gaur egun, ganbaran hormigoizko balkoia dauka.

toponimia

Nahiz eta euskarazko hitz hedatuena dorre izan, Bizkaian torre erabili izan da eta horrela ageri da etxe izenetan. Dorre hauek XIV. mendeko gerretan erabili ziren baina mende horren amaieran bakeak ekarri zuen haien gainbehera eta azkenean etxe bihurtu ziren ateak eta leiho zabalagoak eginez.